

AUZOLAN

“Lanttoni”

Gau betea. Euria goitik behera. Igartubeiti baserriaren atari parean, zalgurdi bat dago, zain. Bi gizonak etxeko jabeari eusten diote, bortxaz; hirugarren bat, kapela beltz bat buruan, mehatxuka ari zaio bitartean.

- Entzun didak, Joxe. Nahi bezala egin ezak, hori ez duk nire arazoa, baina bi hilabete barru itzuliko nauk, eta, hemendik alde egin ez baduk, akabo...
- Biok zekiagu zerga horiek ez direla bidezkoak, eta hala ere hemen hago, borrero zikina!
- Joxe, Joxe... ez dizkiagu gauzak okertuko. Hiri eta hire emazteari dizuedan errespetuagatik, hobe duk esandakoa bete.
- Nire emaztea aipatu ere ez, entzun? Ez duk hirea, ez duk sekula izan... bere aukera egin zian, eta hik ez duk oraindik onartu! Horregatik kendu nahi didak baserria!

Kapeladun gizonak erdeinuz begiratu dio etxeko jaunari.

- Ez duk ulertzen, gizajoa... Nik beti ateratzen zioat zukua guztiari, Joxe...

Gero, lekaioetako bati buruaz baieztoko keinua eginez, buelta eman eta gurdirantz joan da. Agindua jaso duenak ukabilkada lehor bat eman dio etxeko jaunari sabelean, eta alde egin du honek ere, beste lekaioarekin batera, gurdirantz. Eskuak sabel mindura eramanez, euri azpian urruntzen ikusi ditu gizonak.

Biharamuna. Igartubeitin bildu dira bailarako eta inguruetako auzokideak, Joxeri laguntza eskaini eta irtenbide bat bilatzeko.

- Bai, Joxe, argi zegok, Prokuradorea hiri izorratu nahian zebilek, eta zerga erabiltzen dik xantaia egiteko... baina autoritatea duk, eta, horren aurrean, zer egin zezakeagu, bada? – esan du, ozen baina etsipenez, Arriarango Iñaxik.
- Hori hala duk. Prokuradorea ez duk txantxetan ibiltzen denetakoa, Joxe, eta hire atzetik zebilek aspalditik; baina, argi zegok, honek gu guztioi egiten ziguk kalte. Joxe erortzen baduk, banan-banan eroriko gaituk gainontzekook ere. Zerbait egin beharra diagu – Martinen hitzak egoeraren gordina erakutsi dute, eta han bildutakoak hasi dira ulertzen arazoa ez dela nolana hiko.
- Zerbait... baina zer? – dio, lur jota, Joxek.

Izkina batean, ilunpean, auzoen hitzak arretaz entzuten ari da Santa Marinako Antton. Bat-batean, aurpegia argitu zaio. Bildutakoen esanak eten, eta oihu egin du:

- Joxe! – berehala isildu dira denak, eta arretaz entzun dituzte Anttonen hitzak – Prokuradorea duk xantaia egiten ari zaiana, bai, baina hura Erregeren agindua betetzen ari duk. Zein duk Erregeren buruhaustea? Denok zekiagu hire ondoren zer gertatuko den gurekin ere. Erregek etekina nahi dik lur hauetan, eta hori duk guk emango dioguna – harriduraz begiratzen diote denek, burutik pasatzen ari zaiona usaindu ezinda –. Etekina emango zioagu, bai horixe, eta onena zera duk: behar diagun guztia hementxe bertan daukagula – eta, galtzetako poltsikotik sagar bat ateraz, mahai gainean jarri du, irribarre gaizto bat eginez.
- Sagar bat? Zer demontre egingo diagu sagar batekin? – tartean sartu da Martin, gainontzekoen ezin ulertuari ahotsa jarriz.
- Bakar batekin ez, motel! Joxek sagardiz beteta zeuzkak inguruak, eta banian gogoia traste zahar hau martxan jartzeko! – gelaren alde batetik bestera luzatzen den habean ipini du eskua, harro.
- Dolarea? – garraxi bizia bota du Joxek –. Dolareaz ari al haiz? Hi ez hago burutik sano! Urteak zeramatzaat etxe honetan; nire aitak, eta haren aurretik nire aitonak ere hemen eman zizkian lehen pausoak, eta sekula ez diagu dolare hau martxan ezagutu! Astakeria galanta duk!
- Bai, astakeria izango duk akaso, baina gure aukera bakarra duk, Joxe. Badakik anaiak eta biok lan horretan ibili garela urte askoan, eta guztion laguntzarekin eta kanpoan dauzkaan sagarrekin aise beteko dizkiagu bost upel muztio. Eman diezaiogun Erregeri arrazoi bat lur hauetatik etekina ateratzeko, eta Prokuradoreari ez zaizkiok xantaiarako gogorik geldituko!

Hasierako aurpegi eta keinu fidagaitzak aldatzen joan dira, eta poliki-poliki denek Joxerengan jarri dute begirada. Ataka horretatik aterako bada, beste aukerarik ez baitu. Bildutakoei begirada itzuli, eta, oraingoan bai, kemena darion ahots garbiz, esan die: “Lagunok, jarri gaitezen lanean!”.

Baserri eta auzo-herritako jende ugari lotu zaizkio lehen egunetan Joxeri, sagar biltzen eta dolarea prest jartzen. Sekulako makina dute esku artean, eta piezatakako bakoitza, denbora luzez geldi egon arren, ezin hobeto mantendu da. Hagek sendo diraute, eta armiarma sareek ez diete euren itxura sendoa ahultzen; azkoina, harria, gapirioak... erruz ari dira lanean, gau eta egun, ezerk huts egin ez dezan. Gazteenek

eman diote hasiera prozesuari: behin ondo garbituta, sagarrak zanpatzeari ekin diote, indarrez, gogo biziz. Inguruko zaharrenek harrotasunez eta begirunez jarraitzen dute gazteen jarduna, bizitasunez betetzen baitu euren kirikoketak baserri osoa. Une batez, badirudi bailarak bere garai bateko distira berreskuratu duela.

Sagarra zanpatuta, eta egur guztiak gainean tinko eutsi eta gero, itzainaren txanda iritsi da. Idiei makilarekin eraginez, torlojua biraka hasi da. Joxek eta besteek begiak zeharo zabaldua ikusten dituzte lehen muztio tantak pats-askatik behera, tinarantz erortzen, hasieran tantaka-tantaka, zorrotada bizian gero. Urrezko pipitak bailiran argitzen dituzte muztio tantek auzolanean diarduten begirada urduriak. Anttonen ahotik irtendako astakeria, gorpuzten ez ezik, fruitua ematen ari dela erakutsi dio Joxeri egindako lan nekezak.

Laster zabaldu da mirariaren berria inguruko bailaretan, eta ez dira gutxi izan Igartubeitira, sagar otarreak gainean, hurbildu diren baserritarrak. Zazpi aste igaro dira, sagarrak bildu eta zanpatu. Anttonek iragarritako bost ez, baizik eta hamabi upel beteak dituzte honezkero.

- Zer da sabaitik erortzen den ur hori, aita? – galdetzen dio seme txikiak Joxeri.
- Hori, seme, gure etorkizuna duk.

Eguna iritsi da, azkenez. Bi hilabetez lan eta lan ibilitako auzo eta lagunak Joxeren ondoan daude, honen bizkarra zainduz. Prokuradorearen gurdi hotsaren zain daude, adi eta irmo, baina bidetik datorrena ez da gurdi huts bat bakarrik. Hogeita hamar bat zaldiren trostek lau zalgurdi ederren etorrera babesten dute, eta beste hogeitasei soldaduk segizioa ixten dute. Baserri parean gelditu, eta lau zalgurdietatik handiena denera gerturatu dira bi soldadu. Atea ireki eta, planta serioz, erregea jeitsi da, atzetik, aurrekoan bezain handiuste, prokuradorea duela. Joxe eta besteen aurrean gelditu, eta han ikusi ditu hamabi upelak. Herritarrak belauniko jarri dira. Erregeak prokuradoreari zalantzaz begiratu dio.

- Zer da hau guztia? – galdetu du, jende hura baserri atarian ikusita.

Inork ahoa ireki baino lehen, Joxeren seme txiki Miel zutitu egin da, eta, aitak geldiarazi baino lehen, erregearengana joan da, zuzen. Patrikatik sagar bat atera eta, belauniko jarriz, erregeari eskaini dio. Berehala ulertu du mutikoaren keinua, eta soldadu bati upel bat ireki eta muztioa dastatzeko agindu dio. Soldauak hala egin, eta, zurrutada bat emanez, erregeari buruarekin baiezkoko keinua egin dio.

- Igo upel horiek gurdietara! Gizon, jarrai ezazu muztio eder hau egiten, eta zin dagizut ez duzula arazorik izango – Joxek buruarekin eskertza egin, eta

erregea bere gizon guztiekin joaten ikusi du, herritarren txalo eta algaren artean.

Gorrito aurpegiz, prokuradorea gerturatu zaio Joxeri, baina hitz egiten hasi baino lehen, Joxek aurre hartu dio:

- Berorrek ikusten duen bezala, Prokuradore jauna, nik ere badakit egoerari zukua ateratzen.